



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

#### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Errekalde Laguntza Zentroko Zuzendari lanpostua aldi baterako betetzeko merezimendu espezifikoen lehiaketaren deialdia.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an egintza ohiko bileran (4/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

*Lehenengoa:* GUFÉren Errekalde Laguntza Zentroko Zuzendari-lanpostua aldi baterako betetzeko merezimendu espezifikoen lehiaketaren deialdia onestea.

*Bigarrena:* Deialdiaren oinarriak onestea eta erabaki honen eranskin gisa jasotzea.

*Hirugarrena:* Erabaki hau oinarri osoekin batera argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFÉren webgunean.

*Laugarrena:* GUFÉko gerente jaunari baimena ematea deialdi hau garatzeko beharrezkoak diren egintza guztiak gauzatzeko, dagokion bezala ebatzi arte.

*Bosgarrena:* Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko (2) epearen barruan, edo, bestela, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Batzorde honi, hilabeteko (1) epearen barruan.

Bilbon, 2025eko abenduren 4an.—GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**ERREKALDE LAGUNTZA ZENTROKO ZUZENDARIAREN LANPOSTUA ALDI BATERAKO KONTRATUZ BETETZEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

1. Deialdi honen xedea da 1. Eranskinean zerrendatutako Errekalde Laguntza Zentroko zuzendariaren lanpostua aldi baterako kontratuz hornitzea, harik eta arauz betetzen edo amortizatzen den arte.
2. Lanpostu horren ezaugarriak hauek dira:
  - a) Kodea: 2228.
  - b) Hizkuntza-eskakizuna: derrigorrezko C1C1.
  - c) Ordainsaria: administrazioko A taldeko A2 azpitaldeko erdi-mailako tituludun bati dagokiona, 23 ordainsari- eta destino-maila eta %20ko dedikazio eskusiboko osagarria dituena.

**Bigarrena. — Hautagaiek bete beharreko baldintzak**

1. Merezimendu-lehiaketan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:
  - a) GUFeko A taldeko A2 azpitaldeko langile lan-kontratudun mugagabeek parte har dezakete, finkoak badira eta egoera hauetako batean badaude: zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo senideak zaintzeko eszedentzian. Orobat parte har dezakete deialdi honetan (eta zerbitzu aktibora itzuli) derrigorrezko eszedentzia-egoeran dauden, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuan dauden, eginkizun-etenaldian dauden edo borondatezko eszedentzian dauden langileek (baldin eta egoera horietan egoteko ezarritako denbora igaro bada).
  - b) Hamasei (16) urte beteta izatea, baina nahitaezko erretirorako adinik oraindik ez izatea.
  - c) Dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik ez izatea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez.
  - d) Ez egotea bereizita, diziplinazko espediente baten bitartez, ezein administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez egotea funtzio publikoak betetzeko desgaituta.
  - e) Titulazioa: unibertsitateko diploma edo unibertsitate-gradua izatea.
  - f) Hizkuntza-eskakizuna: C1C1.
2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete behar dira baldintza horiek guztiak, bai eta gero ere, harik eta langileari eskuratutako lanposturako kontratua egin arte.

**Hirugarrena. — Eskabideak**

1. Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira. Eredu hori 2. eranskinean agertzen da eta Erakundearen intranetean eskuragarri egongo da: <http://www.ifas.bfa/Index.aspx>

Eskabideak eta haiei dagozkien agiriak elektronikoki izapidetuko dira; horretarako, [ifas.registro@bizkaia.eus](mailto:ifas.registro@bizkaia.eus) postontzira bidali behar dira, PDF edo JPG formatuan, mezuaren «gaian» izen-abizenak adierazita.

2. Eskabideak aurkezteko epea hogeita (20) egun baliodunekoa izango da, deialdi hau GUFeren intranetean eta iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Izangaiek zera adierazi behar dute eskabidean, 2. oinarrian exijitzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

4. Eskabidearekin batera, oinarri espezifikoetan eskatzen den dokumentazio osagarria aurkeztu behar dute izangaiek, besteak beste, alegatutako merezimenduen egiaztagiriak eta lanpostuaren memoria, bertan jasotako zehaztapenen arabera.

**Laugarrena. — Ebaluazio Batzordea**

1. Ebaluazio Batzordeak egingo du merezimenduen ebaluazioa, bai eta deialdiko oinarrien arabera adjudikaziodun gertatzen den eskatzaile bakoitzari lanpostuetako bat adjudikatzeko proposamena ere. GUFeko gerenteak izendatutako batzordekideek eta haien ordezkoez osatuko dute batzordea, honela:

- Batzordeburu bat.
- GUFeko hiru langile lan-kontratudun mugagabe finko, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin; haietako bat batzordeko idazkaria izango da.
- GUFeko Enpresa Batzordeak izendatutako pertsona bat.
- Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren ordezkari bat, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako.

Ebaluazio Batzordearen osakeran, batzordeko kideen egokitasuna eta prestakuntza bermatu behar da. Horretarako, deialdia egin duen organoa arduratuko da batzordekideek ondo ezagutu ditzaten bai deialdian ateratako lanpostuen eginkizunen edukia bai deialdian jasotako merezimenduak egiaztatu eta hautatzeko teknikak.

Ebaluazio Batzordea osatzen duten pertsonen langile lan-kontratudun mugagabe finko izan behar dute, eta deialdiko lanpostuaren titulazio bera edo handiagoa izan. Hala ere, kideen erdiek, gutxienez, deialdiaren xede diren lanpostuei dagokien maila nagusiko hizkuntza-eskakizuna edo handiagoa egiaztatuta izan beharko dute.

Egoki ikusten baldin bada adituren baten iritzia biltzea lanpostuaren bereizgarriak direla-eta, Ebaluazio Batzordeak aukera izango du kanpoko aholkulariengana jotzeko, eta aholkulari horiek txostena baino ez dute egin beharko, hautagaiak egoki diren-edo bete beharreko postuetarako. Aholkulariek ez dute ez hizpiderik ez botorik izango ebazpen-proposamenaren aurreko eztabaidetan.

2. Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen kontrakoa ez den heinean, Ebaluazio Batzordearen eraketan eta jardunean, bete beharrekoak izango dira Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudian ezarritzen dena (Eusko Jaurlaritzaren urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen) zein Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritzen dena.

Epaimahaietan parte-hartzea dela-eta izandako egonaldi, lankidetzak eta abarrei dagokienez, honako hauetan xedatutakoa beteko da: Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuan eta zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan.

**Bosgarrena. — Merezimendu-lehiaketaren garapena**

1. Berriazko oinarrietan dator zehazturik merezimendu-lehiaketaren diseinua.
2. Ebaluazio Batzordeak, eratu ondoren, berriazko merezimenduen faseko proba edo ariketa praktikoa noiz egingo den jakinaraziko du, gutxienez bi hilabete lehenago.
3. Izangaiek atal bakoitzean lortutako puntuazioa GUFeren iragarki-taulan eta intranetean argitaratuko da.
4. Prozeduraren edozein unetan Ebaluazio Batzordeak jakingo balu izangairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, izangai hori deialditik kanpo utziko da, interesdunari aurrez entzueratik emanik.
5. Sailkapen-hurrenkera lehiaketa-fasean lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du, hau da, merezimendu orokor eta espezifikoko bakoitzaren puntuazioen baturak.

Lehiaketaren puntuazio osoan berdinketarik gertatzen bada, honako irizpide hauen arabera ebaztuko da:

- a) Merezimenduetan lortutako puntuaziora joko da; merezimendu horiek deialdiko baremoan ezarritako gehieneko puntuazioaren arabera ordenatuta egongo dira, handienetik txikienera. Merezimenduek puntuazio bera ezarrita dutenean, deialdiaren oinarrietan adierazitako hurrenkerearen arabera erabakiko da.



- b) Hala ere, berdinketak jarraituz gero, hurrenkera hau erabiliko da lehiaketa mota bietan, betiere antzintasun handiena lehenetsita: lehiaketan parte hartu den kategorian karrerako funtzionario edo langile lan-kontratadun mugagabe finko legez duen antzintasuna; karrerako funtzionario edo langile lan-kontratadun mugagabe finko legez duen antzintasuna; azken behin betiko lanpostuan duen antzintasuna, eta, azkenik, administrazioan duen antzintasuna.
- c) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1. artikulua a) apartatua xedatutakoarekin bat etorritik, lanpostu bat hornitzean gaikuntza-berdintasuna gertatuz gero, lehenetsia emakumezkoa izango da, emakumezkoen ordezkariak %40tik beherakoa den administrazioaren kasuan kasuko kategorian. Salbuespena izango da beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoi-ren bat izatea (sexu-diskriminaziorik eragiten ez duena), hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kidea izatea.
- d) Berdinketa hausteko beste irizpideren bat behar izanez gero, Ebaluazio Batzordeak erabakiko du zein erabili, merezimendu-printzipioan oinarrituta.

**Seigarrena. — Ebaluazio Batzordearen proposamena**

Izangaien kalifikazioa amaitutakoan, Ebaluazio Batzordeak GUFeko Gerentziari bidaliko dizkio merezimendu-lehiaketaren behin betiko emaitzak, puntuazio-hurrenkerearen arabera hautatzen den izangaia kontratatzeko ebazpena eman dezan.

**Zazpigarrena. — Intzidentziak**

1. Ebaluazio Batzordeak gaitasuna izango du oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian sortzen diren zalantza guztiak ebazteko eta beharrezko diren erabakiak hartzeko, merezimendu-lehiaketa ondo eta egoki joan dadin.
2. Ebaluazio Batzordeak, merezimendu-lehiaketan zehar, nor bere espedientearen berri izateko eskubidea bermatuko die izangaiei.
3. Deialdia, deialdiaren oinarriak eta deialdiaren eta Ebaluazio Batzordearen jarduketan ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, berehala betearazi beharrekoak izan zein ez; horretarako kasuak eta forma ezarrita daude Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean. Edonola ere, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso ere jar daiteke.

**Zortzigarrena. — Betekizunak betetzen direla egiaztatzea**

Lanposturako proposatutako izangaiak ezartzen zaion epean aurkeztu beharko ditu merezimendu-lehiaketan parte hartzeko eskatzen diren agiriak, 2. oinarrian ezarritako baldintzak egiaztatzekoak.

Horiez gainera, eskabidearekin batera alegatutako merezimenduak behar bezala erkatu eta konpultsatzeko behar diren jatorrizko agiriak edo kautotutakoak ere aurkeztu behar ditu.

Izangaiak ez badu, adierazitako epearen barruan, dokumentazioa aurkezten edo eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen, eta ezinbesteko arrazoirik izan ezan, ezin izango da hura kontratatu, eta baliorik gabe geratuko dira haren jardura guztiak, hargatik eragotzi gabe eskabidea faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna.

Hala geratuz gero, epaimahaiak beste kontratazio-proposamen bat egingo du, merezimendu-lehiaketa gainditu eta azken puntuazioaren hurrenkera hurrengo denaren alde.



## **Bederatzigarrena. — *Lan-kontratua***

Hautatzen den pertsonak dagokion lan-kontratua sinatuko du Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak zehaztutako moduan. Nolanahi ere, kontratatzen den langile finkoa aldi baterako etenaldian geratuko da, hala adostuta, eta jatorrizko lanpostua gordeko zaio, lanpostu berria jarraitzen duen bitartean edo lanpostu hori arauz bete bitartean.

**ERREKALDE LAGUNTZA ZENTROKO ZUZENDARIAREN LANPOSTUA  
ALDI BATERAKO KONTRATUZ BETETZEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Merezimendu orokorrak**a) *Profesionalak: 5 puntu, gehienez*

— Administrazio publikoan izandako esperientzia, bai deialdiko lanpostuan zehazki, bai eskakizun nahiz erantzukizun bertsuko zeregin eta funtzioetan: 0,50 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko.

b) *Prestakuntza*

— Unibertsitateetan eta administrazio publikoko eta erakunde publikoetako prestakuntza-eskoletan jasotako/emaniko prestakuntza, baldin eta lanpostuaren edukiekin zerikusia badu: 0,06 puntu emandako ikastaro-ordu bakoitzeko, eta 0,03 puntu jasotako ikastaro-ordu bakoitzeko; 5 puntu, gehienez.

**Bigarrena. — Berriazko merezimenduak**

Lanpostuaren edukari buruzko proba edo ariketa praktikoa, nahitaezkoa eta baztertzaila. Proba edo ariketa horri gehienez 6 puntu emango zaizkio, eta, gainditzeko, gutxienez hiru puntu lortu beharko dira.

**Hirugarrena. — Merezimendu-lehiaketaren kalifikazioa**

Lehiaketa honetan gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, euskararen ezagutzari dagokionak alde batera utzita, honako hau da:

— Hamasei (16) puntu, guztira; hamar (10) merezimendu orokorren fasean eta sei (6) berriazko merezimenduen fasean.

Horregatik, lor daitekeen gehieneko puntuazioa aurreko paragrafoan ezarritakoa izango da, eta puntuazio horri lanpostu bakoitzean euskarari dagokion ebaluazioa gehituko zaio, derrigortasun-data beteta izateagatik, lanpostuen zerrendako baldintza ez deanean.

Lanpostua eskuratzeko, berriazko merezimenduen fasea osatzen duen proba edo ariketa gainditu beharko da, gutxienez hiru (3) punturekin.

**Laugarrena. — Lan-poltsa**

Berriazko merezimenduetan jasotako proba edo ariketa praktikoa gainditu duten pertsonekin lan-poltsa bat osatuko da.

**Noiz eta nola egiaztatu merezimenduak**

1. Egiaztatze-epea: eskabidearekin batera aurkeztu beharko dituzte hautagaiek alegatzen dituzten merezimenduak egiaztatzeko agiriak. Ez da baloratuko epearen barruan alegatu eta justifikatu ez den merezimendurik, ez eta epearen barruan alegatu bai baina geroago justifikatzen denik.

## 2. Nola egiaztatu merezimenduak:

— Ofizioz egiaztatuko dira Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren datu-basean jasotako dauden GUFeko lanbide-esperientziari, titulazioei, prestakuntzari eta hizkuntza-eskakizunari buruz alegatutako merezimenduak.

— Beste administrazio publiko batean egindako zerbitzuak egiaztatzeko, administrazioak berak emaniko ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

— Prestakuntza egiaztatzeko, ikastaroaren edo tituluaren fotokopia kautotua aurkeztu beharko da (edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiraren fotokopia). Nolanahi ere, zenbat ordu diren zehaztu beharko da, eta, ahal bada, ikastaroaren edukia edo programa ere bai.

3. Epaimahaiak ahalmena gordeko du merezimendu-lehiaketa behar bezala burutzeko egoki deritzen agiri osagarriak eskatzeko.



1. ERANSKINA

Lanpostua	Izena	T/A	FL	LM	BS	Ordainsariak		Betetzeko baldintzak				Baldintzak				PE1	PE2	Oh.	Lanp.	Lanbokia	Deskripzioa	Derrig. data
						OM	Oseg. Ber.	AD	T/A	ES	AE	Plaza	Tit.	HE	ES							
2228	ERREKALDE L. Z. ZUZENDARIA	A/A2	L	B	1	23	36.213,54	1	A/A2		2007						18	1	3822	ERREKALDE LAGUNTZA ZENTROA	2002-12-31	

18 oharra: lizentziaturako hiru ikasturte oso gaindituta sartzeko aukera (30/1984 Legearen 5. xedapen iragankorra) eia lanpostuaren edukari buruzko proba berezia.



LANPOSTUAK BETETZEKO ALDI BATERAKO LEHIAKETA CONCURSO DE PROVISIÓN TEMPORAL DE PUESTOS

ESKABIDE-ORRIA/INSTANCIA 2. ERANSKINA / ANEXO 2 1. ORRIA / HOJA 1

1. Datu pertsonalak / Datos personales. Table with fields for name, address, and contact information.

2. Egoera administratiboa lehiaketan parte hartzean / Situación administrativa desde la que se concursa. Form with checkboxes for administrative status and special services.

3. Legez aintzatetsitako ezgaitasuna duten langileak / Personal que ostenta la condición legal de discapacitado. Form for disability status.

5. Erantsitako agiriak / Documentación que se adjunta. Table for listing attached documents.

2. orrian jarraitzen du / Continúa en la hoja 2



LANPOSTUAK BETETZEKO ALDI BATERAKO LEHIAKETA CONCURSO DE PROVISIÓN TEMPORAL DE PUESTOS

2. ERANSKINA / ANEXO 2 2. ORRIA / HOJA 2

Table with 3 columns: 1. deitura (1.º apellido), 2. deitura (2.º apellido), Izena (Nombre)

Table with 5 columns: Lehent. hurren. Orden prefer., Azalpena Denominación, Postu Kodea Código Puesto, Lanpostu Dot. Dotación Puesto, Lantokia Centro trabajo. Rows 1-12.

Balioets daitezkeen merezimenduen ziurtagiri, frogagiri, fotokopia eta gainerakoak aurkezten dira eskabidearekin batera...

A la presente solicitud se acompañan las certificaciones, justificantes, fotocopias, etc., de los méritos evaluables. La/El abajo firmante solicita su admisión al concurso y declara ser ciertos los datos consignados en esta solicitud.

Bilbao, 2024ko / (Sinadura / Firma) /

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN KUDEATZAILEA GERENTE DEL INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzekoari buruzkoa, eta 2016/679Erregelamendu, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, betetzeko, jakinarazi nahi dizugu zure datuak Gufeko Pertsonala izeneko fitxategian sartuko direla, eta Gufeko Kudeatzailetza dela fitxategi horren erantzulea.

Jasotako datuak beharrezkoak dira Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza kudeatzeko.

Agiri hau beteta, honako hau onartzen duzu: goian esandako erantzuleak zure datuak erabili ditzake, goian esandako helburuetarako.

Horrez gain, datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatuta eta horien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu; horretarako, Gufeko jendaurreko bulegoetara bidali behar duzu idazki bat (Ugasko bidea, 5 bis, 4º 49014 - Bilbao). Idazki hori NANaren edo agiri baliokide baten kopia erantsi behar dituzu.

Con el objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de los Datos Personales y garantía de los derechos digitales y el Reglamento General de Protección de Datos (RGPD) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, le informamos de que sus datos van a ser incluidos en el Fichero Personal, cuyo responsable es la Gerencia del Ifas.

Los datos recabados son necesarios para la gestión de la Dirección de Servicios Generales.

Con la cumplimentación del presente documento, usted consiente al tratamiento de sus datos, por el Responsable indicado anteriormente, con las finalidades descritas en el párrafo anterior.

Asimismo, podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo una comunicación por escrito a las oficinas de atención al público del Ifas, C/ Camino de Ugasko, 5 bis, 1º, 49014 Bilbao, en la que se incluya una copia de su DNI u otro documento identificativo equivalente.



LANPOSTUAK BETETZEKO ALDI BATERAKO  
LEHIAKETA  
CONCURSO DE PROVISIÓN TEMPORAL DE  
PUESTOS

2. ERANSKINA / ANEXO 2  
3. ORRIA / HOJA 3

1. deitura 1.º apellido	2. deitura 2.º apellido	Izena Nombre
----------------------------	----------------------------	-----------------

KRONOLOGIKOAREN ARABERA, ZAHARRENEZ AURRERA, TITULU AKADEMIKOEN ZERRENDA OROKORRA.  
RELACION GENERAL DE LOS TITULOS ACADÉMICOS ORDENADOS CRONOLOGICAMENTE, COMENZANDO POR LOS MÁS ANTIGUOS

Zb. N.º	IZENA DENOMINACION	Orduak Horas	Hasiera Fecha inicio	Nork emana Expedido por
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				



LANPOSTUAK BETETZEKO ALDI BATERAKO LEHIAKETA CONCURSO DE PROVISIÓN TEMPORAL DE PUESTOS

2. ERANSKINA / ANEXO 2 4. ORRIA / HOJA 4

1. deitura 1.º apellido	2. deitura 2.º apellido	Izena Nombre
----------------------------	----------------------------	-----------------

KRONOLOGIKOAREN ARABERA, ZAHARRENEZ AURRERA, HARTUTAKO ETA/EDO EMANDAKO IKASTAROEN ZERRENDA OROKORRA. RELACION GENERAL DE LOS CURSOS IMPARTIDOS Y/O RECIBIDOS ORDENADOS CRONOLOGICAMENTE, COMENZANDO POR LOS MÁS ANTIGUOS

Administrazio publikoko eskolek (IVAP, IANAP, IEAP edo administrazio publikoko beste eskola batzuek) eta zentro ofizialek antolatutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak. Cursos de Formación o perfeccionamiento organizados por Escuelas de Administración Pública (IVAP, IANAP, IEAP u otras Escuelas de Administración Pública) y Centros Oficiales.

Zb. N.º	IZENA DENOMINACION	Orduak Horas	H (hartutakoa) R (recibido) E(emandakoa) I (impartido)	Hasiara Fecha inicio	Nork emana Expedido por
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					